


*Karl Marx*



*Friedrich Engels*

# MANIFESTU

# KOMUNISTA

Fondo documental

**EHK**

Dokumentu fondoa

**Euskal Herriko Komunistak**

# MANIFESTU KOMUNISTA

## *Manifestu Komunista*

Karl Marx eta Friedrich Engels

Hitzaurrea

Manifestu komunista da Marxen idazkietatik gehien irakurtzen dena eta defenda daiteke garai modernoko idazki politikoen artean eragin handieneko testua dela. Marxek eta Engelsek idatzia da 1847aren amaieran eta 1848aren hasieran Justuaren Ligaren, langile alemaniarren alderdi erradikal eta konspiratzailearen eskariz. Marx eta Engels garai hartan Londresen egoitza zeukan Ligarekin gero eta harreman estuagoa izaten hasi ziren 1840. urteen erdi-aldera. 1847an, Ligak bertan behera utzi zuen bere orientazio konspiratzailea, aldatu egin zuen izena Liga Komunista hartuz, eta Marx eta Engelsengana hurbildu zen printzipioen aldarrikapen

bat zirrimarratzeko, izatez, harentzat alderdi- plataforma bat zena. Haiek onartu egin zuten, eta Manifestua Londresen argitaratu zen 1848ko otsailan.

Manifestua laburbilduma teorikoaren eta polemika iraultzailearen arteko konbinazio bat da eta bietan arrakasta distiratsua lortu du. Haren puntu nagusia agian Engelsek laburbildu zuen hobekien obraren 1883ko alemaniar argitalpenaren «Hitzaurrea»n.

Manifestuan zehar dabilen oinarrizko pentsamendua da –garai historiko bakoitzeko produkzio ekonomikoak eta hartatik derrigor sortzen den gizartearen egiturak eratzen dute garai haren historia politiko eta intelektualerako oinarria; ondorioz (lurraren jabetza komunalaren ertarotarren disoluzioaz geroztik) historia guztia klase-borroken historia bat izan da esplotatuen eta esplotatzaileen artean, klase menderatu eta menderatzaileen artean garapen sozialaren estadio bakoitzean; borroka horrek, hala ere, orain estadio bat lortu du, zeinean klase esplotatu eta zapalduak (proletalgoak) jadanik ezin baitu bere burua emantzipatu esplotatzen eta zapaltzen duen klasetik (bugesiatik), aldi berean betiko gizarte osoa esplotaziotik eta klase-borrokatik askatu gabe – pentsamendu oinarrizko hori Marxena da soilik eta eskusiboki.

Manifestua lau sailetan banaturik dago. Lehenak klase-borrokaen historia zirrimarratzen du Erdi Arotik hasi burgesiaren igotzean zehar gizarte kapitalistako orainaldiko klase-egoera eta burgesiaren eta proletargoaren arteko borroka arte. Bigarren sailean, mugimendu komunistaren posizioa nabarmentzen da langile-klasearekiko harremanean eta kritika zenbaiten aurka defendatzen da. Sailaren amaieran, Marxek eta Engelsek proletalgora boterera iritsi eta gero komunistek ekinean jarri beharreko neurrien zerrenda bat egiten dute. Interesgarria da ohartaraztea, ondorengo historiaren argitan, zerrendako puntu batzuek, adibidez, errentazerga graduatuak, galdu egin dutela beren itxura iraultzailea. Hirugarren sailean, Marxek eta Engelsek eztabaidari ekiten diote beste posizio sozialista batzuekin moduak adieraziz, zeinetan beraiena baita sozialismoaren forma zuzena. Azken sail laburrak komunisten harremanak aztertzen ditu beste herrialde batzuetako alderdiekiko eta gomendio ospetsuarekin amaitzen da. «Proletarioek beren kateak baizik ez dituzte galtzeko. Mundu bat dute irabazteko. HERRIALDE GUZTIETAKO PROLETARIOAK, ELKAR ZAITZTE!»

## MANIFESTU KOMUNISTA

\*\*\*

Mamu bat dabil Europan barrena-komunismoaren mamua. Europa zaharreko botere guztiak aliantza santu batean elkartu dira mamu horren aurka, Aitasantua eta Tsarra, Metternich eta Guizot, erradikal frantsesak eta alemaniar polizigizonak.

Non dago oposizioko alderdia aurkari agintariak komunista izena ematen ez diotena, non dago oposizioko alderdi bat oposizio aurreratueni, etsai atzerakoienei bezala, komunismoaren salakuntza estigmatizatzailea jaurtitzen ez diena?

Gertakari horretatik bi ondorio ateratzen dira:

Lehena da komunismoa dagoeneko potentziazat aitorturik daukatela Europako potentzia guztiek.

Bigarrena, badela ordua komunistek egun argitan eta mundu osoaren aurrean adieraz ditzaten beren ideiak, beren joerak, beren nahiak, mamu komunistaren ipuin horri alderdi-manifestu batekin aurre egin diezaioten.

Helburu horrekin bildu dira Londresen herrialde desberdinetako komunistak, eta honako manifestu hau idatzi dute, ingelesez, frantsesez, alemanieraz, italieraz, flandrieraz eta danieraz argitaratuko dena.

\*\*\*

### I.

#### **Burgesak eta Proletarioak<sup>1</sup>**

Orain arteko gizartearen historia klase-borroken historia da.

Askeak eta esklaboak, patrizioak eta plebeiuak, baroiak eta glebako jo-puak, gremio-maisuak<sup>3</sup> eta ofizialak; hitz batean, zapalduak eta zapaltzailak, elkarren aurrez aurre beti, etengabeko borroka bat egin dute, ezkurtukoa batzuetan, agerikoa beste batzuetan, borroka bat, zeinak etapa bakoitzean gidatzen baitu eraentza sozial osoaren eraldakuntza iraultzailera edo bi klase borrokatzaileen baterako hondamendira.

Historiako lehen aldietan gizartea zatiturik aurkitzen dugu ia nonahi

estamentu desberdinetan, zeinetako bakoitzaren barruan gizarte-posizioen askotariko mailak baitaude. Antzinako Erroman

patrizioak, ekiteak, plebeioak, esklaboak dira; Erdi Aroan, jaun feudalak, basailuak, gremioetako maisuak eta ofizialak, glebako jopuak, eta klase horietako ia bakoitzaren barruan mailaketa gehiago.

Gizarte feudalararen hondakinetatik sortutako gizarte burges modernoak ez du gainditu klaseen kontrajartzea. Klase berriak, zapalkuntzako baldintza berriak, borrokaren taxuera berriak ezarri ditu zaharren lekuan.

Hala ere, gure garaia, burgesiaren garaia klase-kontrajartze horiek sinpletu izanak ezaugarritzen du. Gaur, gizarte osoa gero eta gehiago zatitzen da bi sail etsai handitan, elkarren aurrean dauden bi klase handitan: burgesian eta proletalgoan.

Erdi Aroko glebako jopuengandik lehen hirietako «bilauak» sortu ziren; eta bilau horietatik garatu ziren burgesiaren lehen elementuak.

Amerikaren aurkikuntzak, Afrikaren inguruko nabigazioak sail berriak sortu zizkieten gora zetorren burgesiari. Txina eta Ekialdeko Indietako merkatuak, Amerikaren kolonizazioak, koloniekiko komertzioak, truke-bitartekoak eta merkantziak gehitzeak, oro har, merkataritzari, nabigazioari, industriari inoiz ezagutu gabeko bulkada eman zieten eta horrekin deusezten ari zen gizarte feudaleko elementu iraultzaileari garapen bizkor bat.

Ordu arteko industriaren eraientza feudal edo gremiala ez zen iristen merkatu berriek irekitzen zituzten beharrak asetzera. Manufaktura etorri zen haren lekua hartzera. Klase ertain industrialak baztertu zituen gremioetako maisuak, korporazio desberdinen arteko lanaren banaketa desagertu egin zen tailer bakoitzeko lanaren banaketaren aurrean.

Baina merkatuak haziz zihoazen, beharrak gehituz. Manufaktura bera ere ez zen aski. Lurrina eta makineriak iraultzatu zuten produkzio industrialak. Manufakturaren lekua industria handi modernoak hartu zuen, eta klase ertain industrialek lekua utzi zieten milioidun industrialei, armada industrial osoen buruzagiei, burges modernoei.

Industria handiak mundu-merkatua sortu zuen, Amerikaren aurkikuntzak jadanik prestatua zuena. Mundu-merkatuak bulkada neurtezina eman zien merkataritzari, nabigazioari eta lehorreko komunikabideei. Horiek, bestalde, eragina izan zuten industriaren hedapenean, eta neurri berean, industria, merkataritza, nabigazioa, trenbideak hedatzen ziren, eta

neurri berean garatzen zen burgesia, gehitzen ziren haren kapitalak, eta bultza egiten zien atzealdera Erdi Arotik ondarean hartutako klaseak.

Badakusagu, beraz, burgesia modernoa bera garapen-prozesu luze baten produktua dela, produkzio- eta truke-moduen eraldakuntza sail batena.

Burgesiaren garapen maila horietako bakoitza zegokion aurreratze politiko lagundurik zegoen. Jaun feudalen agintepean zapalduriko klasea, burgesiak elkarte autonomo eta armatua eratzen du

«komuna»<sup>4</sup> bere interesen defentsarako; hemen udal-errepublika independenteak, han monarkien hirugarren estatu zergaduna; gero manufakturen garaian nobleziaren kontrapisua da monarkia feudal edo absolutuaren barruan eta monarkia handien oinarria oro har, harik eta, azkenik, industria handia ezarri eta mundu-merkatuaren bideak urraturik, aginte politiko eskusiboa konkistatu eta ordezkari-tza-estatu moderno sortzen den arte. Gaur, estatu-exekutibo modernoa batzorde bat da, burgesia-klase osoaren arazo komunak kudeatzen dituen.

Burgesiak eginkizun guztiz iraultzailea izan du historian.

Burgesiak, agintera iritsi den tokian, deuseztu egin ditu harreman feudal, patriarkal eta idiliko guztiak. Gupidagabe eten ditu lokarri feudal pintarratuak, gizakia «nagusi natural»ekin lotzen zutenak, eta ezer ez du utzi zutik interes biluzia, «eskudiru soil» sentimendu gabea baizik. Ito egin ditu jaiera erlijiosoaren, suhar zalduneriakoaren eta buges onaren melankoliaren estasi santuenak kalkulu egoistaren ur izoztuan. Duintasun pertsonala truke-balio bihurtu du, eta ezin zenbatu ahala askatasun eskrituratu eta ongi lortuen ordezkari-tza-askatasun kontzientziaz gabe bakar bat ezarri du. Hitz batean esateko, lilura politiko eta erlijiosoz estalitako ustiapenaren lekuan, ustiapen ageriko, lotsagabe, zuzeneko eta zakarra ezarri du.

Burgesiak erantzi egin die aureola gaur arte gurgarritzat eta ikara jaieratsuz kontsideraturiko jardueri. Bere soldatapeko zerbitzari bihurtu ditu medikua, jurista, poeta, apaiza, zientzia-gizona.

Burgesiak urratu egin ditu familia-harremanen belo hunkipenezko eta sentimentalak, eta familia-harremana diru-harreman soil bihurtu du.

Burgesiak erakutsi du erreakzioak Erdi Aroan hainbeste miresten dituen indar zakarraren erakustaldi haiek alferkeria nagienean zeukatela beren osagarri egokia. Berak erakutsi zuen lehenik gizakiaren jarduera

zer egiteko gai zen. Burgesiak Egiptoko piramideak, erromatarren akueduktuak eta katedral gotikoak baino askoz obra miresgarriagoak egin ditu, herrien migrazioak eta gurutzadak baino askoz egitada handiagoak egin ditu.

Burgesia ezin da existitu produkzio-tresnak, beraz produkzio-harremanak, eta horrekin eraentza sozial guztia etengabe iraultzatu gabe. Aldiz, aurreko klase industrial guztien lehen existentzia- baldintza zen indarreko produkzio-moduaren iraupen aldagabea. Produkzioaren etengabeko desplazamenduak, baldintza sozial guztien atergabeko kordokatzeak, segurtasunik eza eta mugimendua betierekoak ezaugarritzen dute burgesiaren garaia beste guztien aldean. Iraganeko harreman herdoildu eta finkoak, horien ideia eta sineste zahar eta gurgarrien segizioarekin, disolbatu egiten dira eta eratu-berriak zaharkitu egiten dira hezurdura hartu baino lehen. Trinkoa den guztia urtu egiten da, santua den guztia profanotu egiten da, eta azkenik, gizakia beharturik aurkitzen da, bere bizi-baldintzei eta besteekiko bere harremanei aurrez aurre begiratzera.

Merkatu gero eta hedatuagoak bere produktuentzat aurkitzearen beharrak xaxatu egiten du burgesia lurbira osora. Nonahi egiten du kabia, nonahi eraikitzen du, nonahi ezartzen ditu harremanak.

Burgesiak, mundu-merkatua ustiatzean, izaera kosmopolita ematen die herrialde guztietako produkzioari eta kontsumoari. Erreakzionarioen atsekabe handirako, industriaren oinpeetatik zutik dagoen lurzoru nazionala atera du. Industria nazional zaharrak deuseztu egin dira eta oraindik ere egunero deusezten dira. Industria berriek baztertu egiten dituzte, zeinen ezarpena bizi-arazo baita nazio zibilizatuentzat, zeinek ez baitituzte eraldatzen lehen bezala beren baitako lehengaiak eraldatzen baizik klima urrunagoetatik ekarritakoak eta zeinen fabrikatuak herrialdean bertan ez ezik munduko alderdi guztietan erabiltzen baitira. Garai batean lurraldeko emaitzek asetzen zituzten beharren ordeztu, berriak sortzen dira, herrialde eta klima urrunenetako produktuak haiek asetzeko eskatzen dituztenak. Autohornikuntza eta bakartze tokiko eta nazionalaren ordeztu, alderdi guztiekiko komertzioa dugu, nazioen alderdi guztiekiko dependentzia, eta hori nola produkzio materialean hala intelektualean. Nazio banakoen sorkariak ondare komun bihurtzen dira. Gero eta ezinezkoagoa da aldebakartasun eta mugatutasun nazionala, eta literatura nazional eta tokiko ugarietatik mundu- literatura bat sortzen da.

Burgesiak, produkzio-bitarteko guztien hobekuntza lasterrarekin, etengabe erraztutako komunikazioaren bitartez nazio barbaroenak ere

zibilizaziora eramaten ditu. Bere merkantzien prezio merkea da Txinako harresi guztiak eraisteko, tribu barbaroen atzerritarrarenganako gorroto setatienea errendiarazteko erabiltzen duen artilleria astuna. Behartu egiten ditu nazio guztiak burgesiaren produkzio-modua berenganatzera, hondoa jo nahi ez badute; behartu egiten ditu beren baitan zibilizazioa onartzera, hau da, burges izatera. Hitz batean, mundu bat sortzen du bere irudi propiora.

Burgesiak landa hiriaren agintepean ezartzen du. Hiri eskergak sortu ditu, gehitu egiten du hirietako biztanleria landakoaren aldean neurri handi batean eta erauzi egiten du biztanleriaren parte esanguratsu bat landa-bizitzaren kretinismotik. Eta landa hiriaren mendean ezartzen duen bezala, herrialde barbaro eta erdi-barbaroak zibilizatuen mendean, populu nekazariak populu burgesen mendean, Ekialdea Mendebaldearen mendean ezartzen du.

Burgesia pixkanaka gaudituz doa produkzio-bitartekoen, jabetzaren eta biztanleriaren sakabanaketa. Aglomeratu egin du biztanleria, produkzio-bitartekoak zentralizatu eta jabetza esku gutxitan kontzentratu. Horren ondorio derrigorrekoa zentralizazio politikoa izan da. Probintzia independenteak, ia ozta-ozta loturikoak, interes, lege, gobernu eta zerga desberdinak dituztenak nazio, gobernu, lege, klase-interes nazional, aduanalero bakarra eratzera bultzatu ditu.

Burgesiak klase menderatzaile gisa daraman ia ehun urteetan iragane-ko belaunaldi guztiek batera baino produkzio-indar kolosalago eta masiboagoak sortu ditu. Natur indarren menderakuntza, makineria, kimikaren erabilera industrian eta nekazaritzan, lurrinezko nabigazioa, trenbideak,

telegrafo elektrikoak, kontinente osoen maneaketa, ibaien kanalizazioa, lurzorutik sortutako biztanleriak... Zeinek susmatzen zuen iragandako mendeetan halako produkzio-indarrak lan sozialaren baitan lozorroan zeudenik?

Ikusia dugu produkzio- eta garraio-bitartekoak, zeinaren gainean garatu baitzen burgesia, gizarte feudalean sortu zirela. Produkzio- eta garraio-bitarteko horien garapenaren maila jakin batean, gertatu zen ez zetozela bat gizarte feudalak produzitzen eta trukatzeko zuen harremanak, nekazaritza eta manufakturaren antolakuntza feudala, hitz batean, jabetza-harreman feudala produkzio-indar garatuekin. Beste hainbeste kate bihurtu ziren. Etenarazi egin behar ziren, eta etenarazi egin ziren.



Haien lekuan konkurrentzia askea sartu zen, hari zegokion konstituzio sozial eta politikoarekin, klase burgesaren nagusitasun ekonomiko eta politikoarekin.

Gure begien aurrean ari da gertatzen antzeko mugimendu bat. Gizarte burges modernoa bere produkzio-, truke- eta jabetza-harremanekin, gizarte burges modernoa hain produkzio- eta truke- bitarteko hain ahalt-suak era miresgarrian sorrarazi dituen araoz lurpeko espirituak aterarazi zituen aztiaren parekoa da. Duela zenbait hamarkada, industriaren eta merkataritzaren historia produkzio- indar modernoen historia besterik ez da indarreko produkzio-harremanen aurka, jabetza- harremanen aurka matxinatzen dena, zeinak baitira burgesiaren bizi-baldintzak eta haren nagusitasunekoak. Aski da aipatzea merkataritza-krisiak, zeinen aldizkako errepikapena gero eta arrisku handiagoa baita gizarte burges osoaren existentziarako. Merkataritza-krisiek, produktu landuen parte handi bat deusezteaz gainera, existitzen diren produkzio-indarren parte nabarmen bat ezereztzen dute. Krisi horietan epidemia sozial bat abiarazten da, zeinari aurreko edozein garaik zentzugabe eta kontzebiezin iritziko baitzion: gainprodukzioaren epidemia. Gizartea supituki aldi bateko barbarie-egoera batera atzera eramana aurkitzen da; badirudi gosete batek edo suntsipen- gerra orokor batek eten dituela bizigai guztiak; industria, merkataritza ezereztuak dirudite, eta zergatik? Zibilizazio gehiegi, bizigai gehiegi, industria gehiegi, merkataritza gehiegi duelako. Eskura dituen produkzio-indarrek jabetza-harreman burgesaren harremanak hornitzeko jadanik ez dute balio; alderantziz, ahaltsuegi bihurtu dira harreman horietarako, haiek eragotzi egiten dituzte; eta eragozpen hori gainditu orduko, gizarte burges osoa desordenan jartzen dute, jabetza burgesaren existentzia arriskuan jartzen dute. Harreman burgesak estuegiak dira haiek sortutako aberastasuna hartzeko. Eta nola gainditzten ditu burgesiak krisi horiek? Batetik, produkzio-indarren masa handi bat deuseztuz; bestetik, merkatu berriak konkistatuz eta merkatu zaharrak sakonago ustiatuz. Hau da, gero eta krisi orokorrakoak eta indartsuagoak prestatuz eta krisiak prebenitzeko bitartekoak urrituz.

Burgesiak feudalismoa menderatzeko erabilitako armak orain burgesiaren beraren aurka zuzentzen dira.

Eta burgesiak ez ditu prestatzen heriotza emango dioten armak bakarrik, baizik arma horiek erabiliko dituzten gizakiak –langile modernoak, proletarioak sortu ere egiten ditu.

Burgesia, hau da, kapitala, garatzen den neurri berean, proletarioa,

langile modernoen klasea ere garatzen da, zeinak soilik bizitzen baitira lana aurkitzen duten heinean, eta, zeinek soilik lana aurkitzen baitute, haien lanak kapitala gehitzen duen heinean. Langile horiek, beren burua zatika saldu behar dutenak, merkantzia dira beste edozein merkataritzazalgai bezala eta, era berean, konkurrentzia-aldaketan, merkatuaren gorabehera guztien mende dago.

Proletarioen lanak makineriaren hedapenaren eta lanaren banaketaren bitartez galdu egin du bere izaera autonomoa eta, horrenbestez, langilearentzako xarma oro. Makinaren atal soil bihurtzen da, zeinari eragiketa mekaniko, monotono eta erraz ikasteko bat soilik eskatzen baitzaio. Langileak eragiten dituen kostuak, horregatik, bizigaietara ia bakarrik mugatzen dira, zeinak bere arrazaren iraupen eta ugalketarako behar baititu. Merkantzia baten prezioa, eta ondorioz lanarena ere bai, haren produktio-kostuaren parekoa da. Lanaren arbuigarritasuna hazten den neurri berean, soldata urritu egiten da. Areago, makineria eta lanaren banaketa areagotzen den neurrian, lanaren masa ere neurri berean gehitzen da, bai lanorduak luzatuz, bai denbora jakin batean eskatutako lana areagotuz, makinaren abiadura bizkortuz eta abarrez.

Industria modernoak maisu patriarkalaren tailertxo kapitalista industrialaren fabrika handi bihurtu du. Fabrikan kontzentraturiko langile-masak militarri antolatuz daude. Industriako soldadu arrunt gisa antolatuz daude ofizial eta azpifizialen hierarkia osoaren agindupean. Ez dira burgesiaren eta estatu burgesaren jopuak soilik; baizik eta egunero eta orduoro daude makinak, kontramaisuak, eta batez ere, burges fabrikatzaile banakoak jopu bihurturik. Nagusikeria hori hainbat ziztrinagoa, nardagarriagoa, mingarriagoa da, zenbat eta agerikiago aldarrikatzen duen irabazia duela bere xede.

Zenbat eta esku-lanak trebezia eta indar-kanporatze gutxiago eskatu, hau da, zenbat eta gehiago garatu industria modernoa, hainbat gehiago desplazatzen du gizonaren lana emakumearenak. Langile-klasearentzat sexu- eta adin-desberdintasunek jadanik ez dute inolako balio sozialik. Denak lan-tresnak dira, adina eta sexuaren arabera kostu desberdinak eragiten dituztenak.

Fabrikatzaileak langileari egindako ustiapena bukatu bezain laster eta bere soldata jasotzen duen orduko, gainera oldartzen zaizkio burgesiaren beste parteak, etxe-jabea, dendaria, mailegu-emailea, etab.

Orain arteko estamentu ertaina, industrial txikiak, merkataria eta

errentadunak, artisauak eta nekazariak hurrupatzen ditu proletalgoak; batak, haien kapital txikia ez delako aski industria handiaren enpresarako eta kapitalista handiagoen konkurrentziaren mendeen erortzen delako, eta besteak, produkzio-modu berriek haien trebetasunak baliogabetu dutelako. Horrela proletalgoa biztanleriaren klase guztietatik erreklutatzen da.

Proletalgoak garapen-etapa desberdinak egiten ditu. Burgesiaren aurkako haren borroka bere existentziarekin hasten da.

Hasieran langile bakartuek borrokatzen dute, gero fabrika bateko langileek, gero toki bateko lan-abar bateko langileek zuzenean esplotatzen dituen burges banako baten aurka. Beren erasoak ez dituzte produkzio-harreman burgesen aurka bakarrik zuzentzen, produkzio-tresnen beraien aurka zuzentzen dituzte; merkantzia konkurrente atzeritarrak deusezten dituzte, makinak suntsitzen dituzte, su ematen diete fabrikei, Erdi Aroko langilearen posizio galdua berreskuratu nahi dute.

Lehen etapa horretan herrialdean sakabanaturiko eta konkurrentziak zatikaturiko masa eratzen dute langileek. Langileen masa-kontzentrazioak ez dira oraindik elkartzearen ondorio, baizik burgesia elkartzearen ondorio, zeinek bere xede politiko propioak lortzeko proletalgo osoa mugimenduan jarri behar baitu, eta hori oraindik pixka batean badezake. Etapa horretan proletarioek ez dute oraindik beren etsaien aurka borroka egiten, baizik beren etsaien aurka, monarkia absolutuaren hondarren, lurja-been, burges ez-industrialen, burges txikien aurka. Mugimendu historiko osoa burgesiaren eskuetan kontzentratu dago horrela; horrela lortzen den garaipen oro burgesiaren garaipena da.

Baina industriaren garapenarekin ez da proletalgoa bakarrik gehitzen; masa handiagotan kontzentratzen ditu, haren indarra gehitzen du, eta gero eta gehiago sentitzen ditu. Proletalgoaren barneko interesak, bizibaldintzak gero eta berdina dira, makineriak lanaren desberdintasuna gero eta gehiago ezabatu ahala eta soldata ia nonahi maila apal berdin batera eraisten delarik. Burgesiaren baitan sortutako konkurrentzia gero eta handiagoa eta hortik sortzen diren merkataritza-krisiek langileen soldatak gero eta gorabeheratsuago bihurtzen dituzte; makineriaren etengabeko hobekuntzek, gero eta bizkorrago garatzen direnek, haien bizi-posizioari gero eta ziurtasun-gabezia handiagoa ematen diote, langile banakoaren eta burges banakoaren arteko gatazkek gero eta gehiago hartzen dute bi klaseren arteko gatazka-izaera. Horrenbestez langileak burgesen aurkako koalizioak sortzen hasten dira, beren soldatak babesteko el-

kartu. Elkarte iraunkorrek sortzen dituzte aldez aurretik hornitzeko gerta litezkeen matxinaldietarako. Tarteka, jaikialditan leher egiten du borrokak.

Noizean behin langileek irabazten dute, baina era igarokorrean beti. Borroka horien benetako helburua ez da berehalako emaitza lortzea, baizik langileen gero eta batasun handiagoa hedatzea. Gero eta gehiago hazten diren komunikabideek, industria handiak sortu eta toki eta erregio desberdinetako langileak elkarrekin harremanetan jartzen dituztenek laguntzen dute horretan. Batasun hori beharrezkoa zen nonahi izaera bera zuten tokiko borroka ugariak klase-borroka nazional bihurtzeraino zentralizatzeko. Klase-borroka oro borroka politikoa da. Erdi Aroko hiriek, beren bide eskasekin, mende osoak behar izan zituzten besteekin bat egiteko; proletalgo modernoak, berriz, trenbideei esker, urte gutxitan sortu du batasun hori.

Proletalgoa klase bezala antolatzea, eta, horrenbestez, alderdi politikoa gisa, uneoro hautsi egiten da langileen beren arteko konkurrentziaz. Baina betiere indartsuago, finkoago, ahaltsuago bihurtzen da.

Eta burgesiaren baitan sortzen diren etenez baliaturik langileen interes banakoak aitortzera behartzen du lege-forman. Horrela jaiotzen da Ingalaterran hamar orduko lanaldiaren legea.

Gizarte zaharreko gatazkek, modu askotara, bultzatzen dute proletalgoaren garatze-joaira. Burgesia etengabeko borrokan aurkitzen da: lehenik, aristokraziaren aurka; gero, burgesiako parteen beraien aurka, zeinen interesak kontraesanean sartzen baitira industriaren aurrerabidearekin; beti atzerriko herrialdeetako burgesiaren aurka. Borroka horietan guztietan derrigorreko ikusten du proletalgoari dei egitea, haren laguntza kontuan hartzea eta horrela mugimendu politikora arrastaka eramatea. Berak ematen dizkio proletalgoari erakuntza propiorako elementuak, hau da, bere buruaren aurkako armak.

Gainera, dagoeneko ikusi dugunez, industriako aurrerabideek klase menderatzaileko osagaiak amiltzen dituzte proletalgora, edo gutxienez haien bizi-baldintzatan mehatxatuak sentiarazten dituzte. Proletalgoa osagai-elementuen masa batez hornitzen dute.

Azkenik, klase-borroka erabakitzeko zorian zegoen aldi haietan, antzinako gizartearen baitako klase menderatzailearen disoluzio-prozesuak hain izaera bortxazkoa eta hain nabaria hartzen du, non klase menderat-

zailearen atal txiki bat hartatik berezi eta klase iraultzaileari atxikitzen baitzaio, bere eskuetan etorkizuna dakarren klaseari. Eta lehen nobleziaren parte bat burgesiara pasatu zen bezala, horrela pasatzen da orain proletalgora burgesiaren parte bat, hau da, burgesiako ideologoen parte bat, zeina iritsi baita mugimendu historiko osoaren ulerkuntza teorikoraino.

Gaur egun burgesiari aurre egiten dioten klase guztietatik proletalgoa da errealki klase iraultzaile bakarra. Gainerakoak iraungi eta desagertu egiten dira industria handiarekin; proletalgoa da haren produktu propioa.

Estamentu ertainak, industrial txikia, merkataritza txikia, artisaua, nekazaritza, denek borrokatzen dute burgesia estamentu ertain beren existentzia hondamenditik segurtatzeko. Ez dira, beraz, iraultzaileak, kontserbadoreak baizik. Areago, erreakzionarioak dira, historiaren gorpila atzerantz ibilarazi nahi dute. Iraultzaileak baldin badira proletalgorako igarobidearen aurrean daudelarik begiratuta da. Beraz, ez dituzte presenteko baizik etorkizuneko interesak; beraz, bere ikuspuntu propioa alde batera uzten dute, proletalgoarenean kokatzeko. –Proletalgo zarpaila, gizarte zaharreko geruza behearen usteltze pasibo hori, neurri batean herrestan eraman izango da mugimendu proletarioaren bitartez, nahiz eta haren bizi-baldintza guztiak prestuago egongo diren manei erreakzionarioetarako bere burua erosten uzteko.

Gizarte zaharraren bizi-baldintzak jadanik deusezturik daude proletalgoaren bizi-baldintzetan. Proletalgoa jabetzarik gabea da; emaztea eta seme-alabekiko haren harremanak ez du ezer komun familia-harreman burgesekin; lan industrial modernoa, kapitalaren azpiko mendekotasun modernoa, nola Ingalaterran hala Frantzia, nola Amerikan hala Alemanian, izaera nazional guztia ezabatu dio.

Legia, morala, erlijioa beste hainbeste aurreiritzi burges dira harentzat, zeinen atzean beste hainbeste interes burges ezkututzen baitira.

Aurreko klase guztiak, agintea konkistatu zutenak jadanik eskuratutako bizi-posizioak segurtatzen saiatu ziren gizarte osoa beren eskurapenaren baldintzen pean ezartzen. Proletarioek konkistatu ahal izan zituzten produkzio-indar sozialak soilik, ordu arte jabetze-modua eta horrekin ordu arteko jabetze-modu osoa ezabatuz. Proletarioek ez dute ezer propio segurtatzeko, baizik orain arteko segurtasunak eta segurantzak pribatuak deusezteko.

Orain arteko mugimendu guztiak gutxiengoaren edo gutxiengoaren intere-

sen mugimenduak izan dira. Mugimendu proletarioa gehiengo eskerga baten mugimendu autonomoa da gehiengo eskerga baten interesean. Proletalgoa, gaurko gizartearen geruza behearena, altxatu, zutitu, gizarte ofiziala eratzten duten geruzen gainegitura guztia airean barrena zartarazi gabe.

Nahiz eta edukiz ez izan, formaz proletalgoaren burgesiaren aurkako borroka nazionala izatetik hasten da. Naturala da herrialde bakoitzeko proletalgoak lehenik bere burgesia propioarekin kontuak garbitzea.

Proletalgoaren garapeneko fase orokorrenak zirrimarratzean jarraitu egin dugu gerra zibil gutxi-asko ezkutukoa existitzen den gizartearen barruan halako punturaino, non gerra zibil horrek iraultza ageriko bat sortzen baitu eta proletalgoak, burgesia bortxaz eraitsiz, bere agintea oinarritzen baitu.

Orain arteko gizarte guztiak, dagoeneko ikusia dugunez, klase zapaltzaile eta zapalduen arteko kontraesanean bermatu da. Baina klase bat zapaldu ahal izateko, haren baldintzak segurtatu behar dira, zeinen barruan gutxienez haren existentzia joputzakoa jarrai daitekeen.

Glebako jopuak komunako kide izatera jaso izan zen joputzatik irten gabe, burges txikia burges izatera bezala absolutismo feudalaren uztarri-pean. Langile modernoak, aitzitik, industriaren aurrerabidearekin igo orde, gero eta sakonago hondoratzen da bere klasearen baldintzen azpian. Langilea errumestu egiten da, eta errumeskeria biztanleria eta aberastasuna baino bizkorrago garatzen da oraindik.

Hemen argi geratzen da burgesia ez dela gai aurrerantzean gizartearen klase menderatzaile izateko eta bere klasearen bizi-baldintzak gizarteari lege arautzaile gisa ezartzeko. Ez da gai agintzeko, zeren ez baita gai bere esklaboei beren esklabotzaren barruan bertan segurtatzeko, zeren behar turik baitago hura halako egoera bateraino hondoratzen uztera, non hura elikatu behar duen, hark bera elikatu beharrean. Gizartea ezin da aurrerantzean haren pean bizi, hau da, haren bizitza jadanik ez da gizartearekin bateragarri.

Klase burgesaren existentzia menderakuntzarako baldintza esentziala pribatuen eskuetan aberastasuna metatzea da, kapitala eratzea eta gehitzea; kapitalaren baldintza soldatapeko lana da.

Soldatapeko lana langileen elkarren arteko konkurrentzian bakarrik bermatzen da. Industriaren aurrerabideak, zeinaren eroale nahimen eta erresistentziarik gabea burgesia baita, konkurrentziaren bidezko langile-

ria bakartzearen tokian haren asoziazioaren bidezko elkartze iraultzailea ezartzen du. Industria handiaren garapenarekin burgesiak oinpean ikusten du oinarria bera, zeinaren gainean produzitzen baitu eta produktuez jabetzen baita. Batez ere bere hilobi propioa produzitzen du. Haren gain-beheratzea eta proletalgoaren garaipena saihestezinak dira era berean.

## II.

### **Proletarioak eta komunistak**

Zer harreman dute komunistek proletarioekin, oro har? Komunistak ez dira alderdi berezi bat beste langile-alderdien aurrean. Ez dute interesik proletalgo osoaren interesez bestelakorik.

Ez dute printzipio berezirik ezartzen, zeinen arabera mugimendu proletarioa molda daitekeen.

Komunistak bereizten dira gainerako alderdi proletarioetatik gauza bakar batean: alde batetik, proletarioen borroka nazional bakoitzean proletalgo osoaren interes komunak, nazionalitatearekiko independenteak nabarmendu eta baliaraztean, eta bestetik, garapen-fase desberdinetan, zeinetatik pasatzen baita proletalgoa eta burgesiaren arteko borroka, beti mugimendu osoaren interesak ordezkatzean.

Komunistak dira, beraz, herrialde guztietako langile-alderdien atal erabakigarriena eta beti bultzatzen ari dena praktikan; bestalde, teorikoki proletalgoaren gainerako masa handiarekiko mugimendu proletarioaren baldintzak, joaira eta emaitza orokorrak ulertzearen abantaila dute.

Komunisten berehalako xedea gainerako alderdi proletarioena bera da: proletalgoa klase bihurtzea, burgesiaren menderakuntza eraistea, bostere politikoa konkistatzea proletalgoaren bidez. Komunisten proposamen teorikoak ez dira inondik ere ideiatan, printzipiotan, zeinak honelako edo bestelako mundu-hobetzailek asmatu edo aurkitu baititu.

Existitzen den klase-borroka baten harreman errealean, gure begien aurrean doan mugimendu historiko baten adierazpen orokorra besterik ez da. Dauden jabetza-harremanak ezabatzea ez da inondik ere komunismoaren ezaugarri bereizgarria.

Jabetza-harreman guztiak etengabeko bilakaera historiko baten, aldaketa historiko iraunkor baten mendean egon dira.

Iraultza frantsesak, adibidez, jabetza feudala ezabatu zuen burgesaren mesedetan.

Komunismoa ezaugarritzen duena ez da jabetza ezabatzea, oro har, baizik jabetza burgesa ezabatzea.

Baina jabetza pribatu burges modernoak produktuen sortzearen eta jabetzearen adierazpen azken eta perfektuena da, zeina klase-kontraesanetan, batak bestea esplotatzearen gainean bermatzen baita.

Ildo horretatik komunistek beren teoria adierazpen batean, jabetza pribatua gainditzean laburbil dezakete.

Komunistoi aurpegiatzen zaigu, pertsonalki eskuratutako, lan proioaren bidezko jabetza ezabatu nahi dugula; askatasunaren, jardueraren eta autonomia pertsonal ororen oinarria dena.

Norberak landu, eskuratu eta merezitako jabetza! Artisau apalaren, nekazari txikiaren jabetzaz ari al zarete, jabetza burgesaren aurrekoa izan zenaz? Ez daukagu ezabatu beharrik, industriaren garapenak ezabatu du eta ezabatzen du egunero.

Ala jabetza pribatu burges modernoak ari zarete?

Soldatapeko lanak, proletarioaren lanak jabetza sortzen al dio? Inola ere ez. Kapitala, hau da, jabetza sortzen du, soldatapeko lana ustiatzen duena, zeina soldatapeko lan berria berriro ustiatzeko sortzen duen baldintzapean bakarrik gehitzen baita. Jabetza bere gaurko taxueran kapitalaren eta soldatapeko lanaren arteko kontrajartzean mugitzen da. Kontsidera ditzagun kontrajartze horren bi aldeak.

Kapitalista izateak esan nahi du ez bakarrik produktioan posizio pertsonal bat hartzea, baizik soziala ere bai. Kapitala produktu kolektibo bat da eta kide askoren jarduera komun baten bidez bakarrik, are azken finean gizarteko kide guztien jarduera komunaren bidez bakarrik jar daiteke mugimenduan. Kapitala ez da, beraz, botere pertsonala, soziala baizik.

Kapitala jabetza komun, gizarteko kide guztiei dagokiena bihurtzen denean, orduan ez da jabetza pertsonal bihurtzen, sozial baizik. Jabetza-rena izaera soziala bakarrik eraldatzen da. Bere klase-izaera galtzen du.

Soldatapeko lanari hel diezaiozun.

Soldatapeko lanaren batez besteko prezioa soldataren gutxienekoa da, hau da, langilea langile den heinean sostengatzeko beharrezko bizigaien batura. Soldatapeko langileak bere lanarekin eskuratzen duen gutzia da, beraz, hertsiki behar duena bizitzeko eta lan egiten jarraitzeko. Guk ez dugu ezabatu nahi inola ere bizitza bitartegabea birsortzeko lan-



produktuen jabetze pertsonala, jabetze bat, zeinak ez baitu uzten etekin likidorik, lan atzerritarraren gainetik boterea eman lezakeenik. Jabetze horren izaera laidagarria gainditu nahi dugu guk, zeinean langilea kapitala gehitzeko bakarrik bizi baita, zeinean bizi baita klase menderatzailearen interesak eskatzen duen heinean. Gizarte burgesean, lan bizia bitarteko bat da lan metatua gehitzeko. Gizarte komunistan, lan metatua bitarteko bat da, langilearen bizi-prozesua hedatzeko, aberasteko, sustatzeko.

Gizarte burgesean, beraz, iragana presentearen gain nagusitzen da; komunistan, presentea iraganaren gain. Gizarte burgesean, kapitala independentea eta pertsonala da, aldiz, norbanako aktiboa independentea eta inpertsonala.

Eta harreman horiek gainditzeari deitzen dio burgesiak pertsonaltasuna eta askatasuna gainditzea! Eta zuzen dabil. Noski, kontua da burgesiaren pertsonaltasuna, independentzia eta askatasuna gainditzea!

Askatasun hitzaz ulertzen da gaurko produkzio-harreman burgesen barruan merkataritza askea, salerosketa askea!

Salerosketa desagertzen bada, salerosketa askea ere desagertzen da. Salerosketa askeari buruzko hizketa horrek, baita oro har askatasunari buruzko gure burgesiaren gainerako goraltza horiek guztiek, salerosketa murriztuaren aurrez aurre bakarrik dute zentzua, oro har, Erdi Aroko hiritar joputuen aurrez aurre, baina ez salerosketaren, produkzio-harreman burgesen eta burgesia beraren gainditze komunistaren aurrez aurre.

Izutu egiten zarete jabetza pribatua gainditu nahi dugulako. Baina existitzen den zuen gizartean dagoeneko gainditua dute bertako kideek jabetza pribatuaren hamarretik bederatzian; existitzen da, hain zuzen, hamarretik bederatzirentzat existitzen ez delako. Aurpegiratzen diguzue jabetza bat gainditu nahi dugula, zeinak auresuposatzen baitu beharrezko baldintzatzat gizartearen gehiengo eskerga batek jabetzarik ez izatea.

Hitz batean, aurpegiratzen diguzue zuen jabetza gainditu nahi dugula. Noski, horixe nahi dugu.

Lana kapital, diru, errenta, hitz batean, botere sozial monopolizagarri bihurtzerik ez dagoen unetik, hau da, jabetza pertsonala jabetza burges trukatzetik ez dagoen unetik, pertsona gainditua dago.

Aitortzen duzue, beraz, zuentzat ez dagoela burgesa, jabetzadun hiritarra beste pertsonarik. Eta pertsona hori gainditu egin behar da noski.

Komunismoak ez dio inori boterea kentzen produktu sozialak jabetzeko, jabetze horren bitartez lan arrotzaren mendean ezartzeko boterea kentzen dio soilik.

Objektatu da jabetza pribatua gainditzearekin jarduera guztia geldituko dela eta nagikeria orokor bat hedatuko dela.

Honezkero gizarte burgesak aspaldi alferkeriaz lur jota egon beharko zukeen; zeren hartan lan egiten dutenek, ez baitute eskuratzen, eta hartan eskuratzen dutenek, ez baitute lan egiten. Objekzio hori guztia tautologia baten adierazpena baizik ez da: soldatapeko lanik ez dagoela, kapitalik ez dagoenean.

Produktu materialen jabetze- eta produkzio-modu komunisten aurkako objekzio guztiak produktu intelektualen jabetze eta produkziara ere hedatzen dira. Burgesarentzat klase-jabetza galtzea produkzioa bera galtzea den bezala, berarentzat klase-kultura galtzeak oro har kultura galtzearekin bat egiten du. Hainbeste deitoratzen duen kulturaren galera hori gehiago eskerga makina bihurtzen duena da.

Baina ez ezazue eztabaida gurekin jabetza pribatua ezabatzeaz, askatasunik, kulturatik, zuzenbidetik eta abarretik, zuen kontzepzio burgesetatik abiatuz. Zuen ideiak berak produkzio- eta jabetza-harreman burgesen sorkariak dira, zuen zuzenbidea lege izatera jasotako zuen klase-nahimena besterik ez den bezala, zuen klasearen bizi-baldintza materiale-tan edukia emana daukan nahimena.

Iraungi diren klase menderatzaile guztiekin partekatzen dituzue zuen produkzio- eta jabetza- harremanak, produkzioaren joiran desagertzen diren baldintza historikoen obra, lege natural eta arrazional betierekotan bermatzen direlako kontzepzio interesatua. Antzinako jabetzarako ulertzen duzuen, jabetza feudalerako ulertzen duzuen, ezin duzue ulertu jabetza burgeserako.

Familia gainditzea! Erradikalenak ere sutan jartzen dira komunisten proposamen makurraren aurrean!

Zertan bermatzen da gaurko familia burgesa? Kapitalaren gainean, lurkuru pribatuaren gainean. Burgesiarentzat bakarrik existitzen da hura erabat garatua; baina proletarioen familia-gabezia behartuan eta prostituzio agerikoan bakarrik aurkitzen du bere osagarria.

Naturala da burgesen familia desagertzea osagarri hori desagertzean, eta biak iraungitzea kapitala iraungitzean.

Gurasoek beren seme-alabak esplotatzea gainditu nahi dugula aurpegi-ratzen al diguzue? Aitortzen dugu krimen hori.

Baina, hala diozue, harreman intimoenak kentzen ditugu, etxeko hezkuntzaren orde zoziala ezartzen dugulako.

Zuen hezkuntza bera ere ez al dago gizarteak determinatua? Harreman sozialem bidez, zeinen barruan hezten baitzarete, gizartearen tarteratze zuzeneko edo zeharkakoaren bidez, eskolaren bitartez? Komunistek ez dute asmatu gizarteak hezkuntzan duen eragina, haiek haren izaera aldatu egiten dute, klase menderatzailearen eraginpetik atera erauzi egiten dute hezkuntza.

Familia eta hezkuntzari gurasoen eta seme-alaben arteko harreman intimoen buruzko burgesen hizkera horiek hainbat nazkagarriagoak gertatzen dira, zenbat eta industria handiaren ondorioz proletarioen familia-lokarri guztiak urratzen eta seme-alabak merkantzia eta lanabes soil bihurtzen diren heinean.

Baina zuek komunistok emakumeen erkidegoa ezarri nahi duzue, oiher egiten digu burgesiak aho batez.

Burgesak produkzio-tresna soil bat ikusten du bere emakumearengan. Entzuten du produkzio-tresnak erkidegoan ustiatu behar direla, eta derigor pentsatu behar du erkidegotasunaren zoria, era berean, emakumeen ere badagokiela.

Ez da ohartzen hor kontua emakumeak produkzio-tresna bezala duen posizioa gainditzea dela.

Gainerakoan ezer ez da barregarriagorik gure burgesiaren moralitasun handiko izua baino, komunisten emakume-erkidego ofizial ustezkoari buruz. Komunistek ez dute emakume-erkidegoa ezarri beharrik, ia beti existitu baita.

Gure burgesek, aski ez dutelarik beren eskura edukitzeaz beren proletarioen emakumeak eta seme-alabak, prostituzio ofizialaz ez hitz egitearren, egundoko atsegina sentitzen dute elkarren emazteak seduzitzen.

Izatez, ezkontza burgesa bada emazte-erkidegoa. Gehienera, komunistei aurpegira lekiete gaurko emakume-erkidego hipokritiki ezkutatuaren orde beste ofizial, ageriko batez ordeztu nahi izatea. Gainerakoan aise ulertzen da gaurko produkzio-harremanak gainditzean hartatik sortzen den emakume-erkidegoa ere, hau da, prostituzio ofiziala eta ez-ofiziala

desagertu egiten dela.

Komunistei gainera aurpegiratzen zaigu, aberria, nazionalitatea ezabatu nahi dugula. Langileek ez dute aberririk. Ezin zaie kendu ez daukatenik. Hala ere, proletalgoak aginte politikoa konkistatu nahi duelarik, klase nazional izatera igo beharra du, bere burua nazio bezala eratu beharra du, bera ere nazionala da, nahiz eta ez izan inola ere burgesiaren zentzuan.

Herrien desberdintasun eta kontraesanak desagertuz doaz gero eta gehiago burgesiaren garapenarekin, merkataritza-askatasunarekin, mundu-merkatuarekin, produkzio industrialaren erabatekotasunarekin eta horri dagozkion bizi-harremanekin.

Proletalgoaren menderakuntzak oraindik lasterrago desagerraziko ditu. Herrialde zibilizatuen ekintza bateratua da haren askapenerako lehen baldintzetako bat.

Norbanako bat beste batek esplotatzea gainditzen den neurrian, nazio batek beste bat esplotatzea gainditzen da. Nazioaren barruan klaseen kontrajartzearekin galdu egiten da nazioen jarrera etsaikorra. Komunismoaren aurka ikuspuntu erlijioso, filosofiko eta ideologikotik egiten diren salakuntzek ez dute merezi eztabaida xeheagorik.

Intuizio zorrotzagoa behar al da ulertzeko gizakiaren bizi-harremanekin, haren harreman sozialekin, haren existentzia sozialekin, haren kontzepzioak, ikuspegiak eta ideiak, hitz batean, haren kontzientzia ere aldatu egiten dela?

Zer egiaztatzen du ideien historiak, baizik eta produkzio intelektuala materialarekin batera eraldatzen dela? Garai bateko ideia menderatzaileak beti izan dira klase menderatzailearen ideiak.

Gizarte oso bat iraultzatzen duten ideiez hitz egiten da; horrekin adierazten da gizarte zaharraren barruan berri baten elementuak eratu direla. Bizi-harreman zaharrak disoluzioarekin ideia zaharren disoluzioa parez pare doala.

Mundu zaharra beheraka zihoala, erlijio kristauak garaitu egin zituen erlijio zaharrak. Ideia kristauak 18. mendean ilustrazioko ideien mendean erortzen ari zirela, gizarte feudala herio-borrokan ari zen ordukoan iraultzailea zen burgesiarekin. Kontzientzia- eta erlijio-askatasunaren ideiek konkurrentzia askearen nagusitasuna adierazi zuten jakitearen alorrean.

«Baina –esango digute– ideia erlijioso, moral, filosofiko, politiko, juridiko eta abarrek modifikatu egiten dira garapen historikoaren joairan. Erlijioa, morala, filosofia, politika, zuzenbidea, aldaketa horretan egon dira beti. Gainera, egia betierekoak daude askatasuna, justizia eta abar bezalakoak, estamentu sozial guztiei komunak zaizkienak. Baina komunismoak ezabatu egiten ditu egia betierekoak, ezabatu egiten ditu erlijioa, morala; berriro taxutu ordez, kontra egiten dio orain arteko garapen historiko guztiei.»

Zertara murrizten da salaketa hau? Orain arteko gizarte osoaren historia klase-kontrajartzetan mugitu da, zeinak garai bakoitzean desberdin taxaturik baitzeuden. Baina zeinahi forma hartzen duelarik ere, gizartearen atal batek bestea esplotatzea da iragan mende guztietako errealitate komuna beti. Ez da harritzekoa, beraz, mende guztietako kontzientzia soziala, askotarikotasun eta desberdintasun guztiak gorabehera, forma komun halako batzuetan mugitzea, kontzientzia-forma batzuetan, zeinak klase-kontrajartzeak osoki desagertzean disolbatzen baitira erabat.

Iraultza komunista da ondarean hartutako jabetza-harremanekiko haustura erradikalena; ez da harritzekoa haren garapen-joairan ondarean hartutako ideiekin erarik erradikalenean haustea.

Baina alde batera uzten ditugu burgesiak komunismoaren aurka egin-dako objektzioak.

Lehenago ikusia dugu langile-iraultzaren lehen pausoa proletalgora klase menderatzaile izatera igotzea dela, demokraziaren konkista.

Proletalgora bere nagusitasun politikoaz baliatuko da, burgesiari pixkanaka bere kapitala kentzeko, produkzio-tresna guztiak estatuaren eskuetan, hau da, klase menderatzaile gisa antolaturiko proletalgoarenean zentralizatzeko eta produkzio-indarren masa ahalik eta lasterren gehitzeko.

Hori naturala denez, hasieran jabetza-zuzenbideari eta produkzio-harreman burgesei egindako eraso despotikoen bitartez bakarrik gerta daiteke, neurrien bitartez, zeinek ekonomikoki askiek eta sostengaezina baitirudite, baina mugimenduaren joairan bere buruaren gainetik haratago

bultzatuko baitute eta ezinbestekoak baitira produkzio-modu osoa eraldatzeko bitarteko gisa. Neurri horiek, normala denez, desberdinak izango dira herrialde bakoitzaren arabera.

Herrialde aurreratuenentzat honako orokor samar hauek aplikagarriak

izan litezke: 1-Jabetza higiezinaren desjabetzea eta lurzorua errenta ezartzea gastu publikoei. 2-Zerga aurrerakor indartsua.

3-Herentzia-eskubidea ezabatzea.

4-Etorkin eta errebeldeen fortuna konfiskatzea.

5-Estatuaren kreditua zentralizatzea Banku nazional baten bidez, estatuaren kapitalarekin eta monopolio eskusiboarekin.

6-Garraioen nazionalizazioa.

7-Fabrika nazionalak eta produkzio-tresnak gehitzea, lurrak maneatu eta hobetzea plan kolektibo baten arabera.

8-Lan egitearen betebeharra aldarrikatzea; armada industrialak sortzea, landan batik bat.

9-Ustiategi nekazaritzakoak eta industrialak artikulatzea; pixkanaka landaren eta hiriaren arteko desberdintasunak ezabatuz joateko joera.

10-Haur guztien hezkuntza publiko eta doakoa. Haurrek gaurko eran fabriketan lan egitearen debekua. Hezkuntza eta produkzio materiala bateratzea etab.

Garapenaren joiran klase-desberdintasunak desagertu direnean, eta produkzio guztia norbanako asoziatuen eskuetan kontzentratu direnean, botere publikoak galdu egiten du bere izaera politikoa. Botere politikoa, berez, klase baten botere antolatua da beste bat zapaltzeko. Burgesiaren aurka borrokan ari den proletalgora derrigor klase gisa elkartzean, iraultza baten bitartez klase menderatzaile bihurtu eta klase menderatzaile gisa bortxaz produkzio-harreman zaharrak gaitzen dituztenean, produkzio-harreman horiekin klase-kontrajartzeen existentzia-baldintzak, klaseak oro har, eta horrela bere nagusitasun propioa klase gisa bertan behera uzten du.

Gizarte burgesaren lekua, haren klaseekin eta klase-kontrajartzeekin, asoziazio batek hartuko du, zeinean bakoitzaren garapen askea guztion garapen askea baita.

### III.

#### **Literatura sozialista eta komunista** 1. Sozialismo atzerakorra

a) Sozialismo feudala Aristokrazia frantsesa eta ingelesa, bere posizio historikoaren arabera, deiturik zegoen gizarte burges modernoaren aurka

panfletoak idaztera. 1830eko ekaineko iraultza frantsesean, mugimendu erreformista ingelesean beste behin sakon gorrotatuak mendean hartu zuen. Ia ez zegoen borroka politiko serio batez hitz egiterik. Borroka literarioa bakarrik geratzen zitzaion. Baina literaturaren alorrean ere Errestaurazio-garaiko 5 hizkera zaharra ezinezko bihurtuta zegoen.

Sinpatia irabazteko, aristokraziak itxuraz bere interesak begietatik galdu beharra zeukan eta burgesia akusatu langile-klase esplotatuarena beste interesik eduki gabe. Horretara, beren nagusi berriari irri-koplak abestu eta iragarpen gutxi-asko hondamendizkoak belarrira xuxurlatzeko gozamina ematen zion bere buruari.

Modu horretara jaio zen sozialismo feudala, erdi-deitorea, erdi-irrikopla, iraganeko erdi-oihartzuna, etorkizuneko erdi-burrunda; noizean behin, burgesiari zartako bat bihoitzaren erdian ezartzen ziona bere epai garratz eta zorrotzekin, historia modernoaren joaira ulertzeko erabateko bere ezgaitasunarengatik beti komikoki eraginez.

Aristokraziak eskeko-zaku proletarioa, bandera gisa, astintzen zuen eskuan, herria bere atzetik biltzeko. Baina jarraitzen zion bakoitzean, herriak dirdir egiten ikusten zuen buruzagien bizkarretan arma feudal zaharrak eta barre-algara ozen eta irreberentearekin sakabanatzen zen.

Legitimista frantsesen parte bat eta Ingalaterra gaztea izan ziren ikus-kizun horren antolatzaile bikainenak.

Feudalek egiaztatzen dutenean beren esplotatzeko modua beste era batera taxaturik zegoela esplotazio burgesaren aldean, ahaztu egiten dute haiek zirkunstantzia eta baldintza zeharo desberdin eta orain desagertuetan esplotatzen zutela. Frogatzen dutenean beren agintepean ez zela existitzen proletalgo modernoa, ahaztu egiten dute beren burgesia modernoa beren gizarte-ordenaren beharrezko kimua dela.

Gainerakoan, hain gutxi saiatzeko dira beren kritikaren izaera erreakzionarioa disimulatzen, non burgesiaren kontrako haien salakuntza nagusia den, beren eraentzaren azpian klase bat garatu dela klase-ordena zahar osoa lehertaraziko duena.

Gehiago aurpegiatzen diote burgesiari proletalgo iraultzaile bat sortzea, oro har, proletalgo bat sortzea baino.

Horregatik praxi politikoan beti esku hartzen dute langile-klasearen aurkako bortxaketa-neurri guztietan eta bizitza arruntean; erretolika hanpatu guztiak gorabehera, urrezko arrautzak biltzera mugatzen dira,

eta fideltasuna, maitasuna, ohorea artilea, erremolatxa eta pattarrarekin trukutzen.<sup>6</sup>

Apaizak beti jaun feudalen besotik joaten ziren bezala, horrela apaiz-sozialismoa feudalararekin doa.

Ez dago ezer errazagorik aszetismo kristauari berniz sozialista ematea baino. Ez al zuen gudukatu kristautasunak jabetza pribatuaren aurka, ez-kontzaren aurka, estatuaren aurka? Ez al zituen haien lekuan karitatea eta limosna, zelibatua eta haragia hilduratzea, monako-bizitza eta Eliza predikatu? Sozialismo kristaua apezak aristokraten amorruari botatzen dion ur-bedeinkatua besterik ez da.

#### b) Sozialismo burges txikia

Aristokrazia feudala ez da burgesiak eraitsitako klase bakarra, zeinaren bizi-baldintzak zapaldu eta hiltzera etorri baita gizarte burges moderno. Erdi Aroko bilauak eta nekazari txikiak izan ziren burgesia modernoaren aitzindariak. Eta industrialki eta komertzialki gutxiago garatutako herrialdeetan klase horrek begetatzen jarraitzen du gorantz doan burgesiaren alboan.

Zibilizazio modernoa garatu den herrialdeetan klase berri burges txiki bat eratu da, burgesiaren eta proletalgoaren artean igerika dabilena eta zeina gizarte burgesaren atal gisa beti berriro eratzen baita. Klase horretako kide banakoak etengabe proletalgora arrastatuak dira konkurrentziaren eraginez, eta, industria modernoa garatzen den heinean, ikusi ere ikusten dute ueña, non erabat desagertuko diren gizarte modernoaren atal independente merkataritzan, manufakturan, nekazaritzan kapataz eta domestikoez ordeztuak izateko.

Frantzia bezalako herrialdeetan, zeinean nekazari-klaseak biztanleria-erdia baino askoz gehiago eratzen baitu, naturala zen idazle batzuek, proletalgorarekin burgesiaren aurka zeudenek, burges- eraentzaren beren kritikan burges txikiaren eta nekazariaren interesak arautzat hartzea, eta langileen alderdia burges txikiaren ikuspuntutik ulertzea. Horrela sortu zen sozialismo burges txikia. Sismondi da literatura horren burua, Frantzian ez ezik baita Ingalaterran ere.

Sozialismo horrek oso zorrotz aztertu ditu produkzio-harreman modernoetako kontraesanak. Mozorroa kendu die ekonomialarien zuribidetzeari hipokritei. Era ezeztazinean frogatu ditu makineriaren eta lanaren banaketaren ondorio suntsitzaileak, kapitalen kontzentrazioa eta jabetza



higiezina, gainprodukzioa, krisia, burges txikien eta nekazarien ezinbesteko beherakada, proletalgoaren miseria, produkzioko anarkia, aberastasunaren banaketako desberdinkeria sumingarriak, nazioek beren artean egiten duten susnatsipen-gerra industrialak, antzinako ohituren, antzinako familia-harremanen, nazionalitate zaharren disoluzioa.

Baina haren formula positiboei dagokienez, sozialismo horrek antzinako produkzio- eta truke- bitartekoak berrezarri egin nahi ditu, eta horiekin antzinako jabetza-harremanak eta antzinak gizartea, edo produkzio- eta truke-harreman modernoak indarrez txertatu nahi ditu jabetza-harremanen markoan, zeinak ezandarazi baitzituen, ezandarazi behar izan baitzituen. Bi kasuetan atzerakorra eta utopikoa da aldi berean. Gremioak manufakturan eta ekonomia patriarkala landan, horiek dira haren azken hitzak.

Geroko garapenean joera sozialista hau lozorro koldarrean sartu da.

c) Sozialismo alemaniarra edo «egiazkoa»

Frantziako literatura sozialista eta komunista, zeina burgesia menderatzaile baten presiopean jaio baitzen eta zeina haren menderakuntzaren aurkako borrokaren adierazpen literarioa baita, Alemaniara eraman zen, burgesia absolutismo feudalaren aurkako borroka hasi zuen une berean.

Filosofoeak, sasi-filosofoeak eta buruargi alemaniarrek irrikaz bereganatu zuten literatura hori, baina ahaztu egin zuten idazki haiek Frantziatik etortzean aldi beean ez zirela etorri Alemaniara bizi- baldintza frantsesak. Alemaniar harremanen aurrean, literatura frantsesak galdu egin zuen esanahi praktiko bitartegabea eta itxura literario soila hartu zuen. Giza esentziari egikaritzeari buruzko espekulazio alferraren itxura hartu behar izan zuen. Beraz, XVIII. mendeko filosofo alemaniarrentzat frantses iraultzaren postulatuak oro har «arrazoi praktikoa»ren postulatuak izatearen zentzua zuten, eta frantses burgesiaren nahimen-adierazpenak haien begietarako nahimen hutsaren legeak bakarrik ziren, izan behar duen bezalako nahimenarenak, egiazko giza nahimenarenak.

Literato alemaniarren lan bakarra zegoen ideia frantses berriak beren kontzientzia filosofiko zaharrarekin harmonizatzean edo areago beren ikuspuntu filosofikotik ideia frantsesak berenganatzean, itzulpenaren bidez.

Anexioa gertatu zen hizkuntza arrotz bat egiten den era berean, hau da, itzulpenaren bidez.

Ongi ezaguna da nola monakoek idazten zituzten santuen historia katoliko zozoak, antzinako jentil- garaietako obra klasikoak zeuzkaten eskuizkribuen gainean. Literaro alemaniarrek alderantziz jokatu zuten literatura frantses profanoarekin. Jatorrizko frantsesaren azpian idatzi zituzten beren aldrebeskeria filosofikoak. Esaterako, diru-harremanen kritika frantsesaren azpian «giza esentziaren alienazioa» idatzi zuten, estatu burgesaren kritika frantsesaren azpian «orokor abstraktuaren agintea gainditzea» idatzi zuten eta abar.

Esapide filosofiko horiek garapen frantsesen azpian sartzea bataiatu zuten «egitatearen filosofia», «egiazko sozialismoa», «sozialismoaren zientzia alemaniarra» eta abar.

Horrela, literatura sozialista-komunista frantsesa formalki irendu egin zuten. Eta alemaniarren eskuetan jadanik klase baten beste baten aurkako borroka adierazten ez zuenez, alemaniarra kontziente zen «alderdikeria frantsesa» gainditu zuela; behar egiazkoan ordeztu egia beharra eta proletarioen interesen ordeztu giza esentziaren interesak, gizakiarenak oro har, ordeztu izana, ezein klasetakoa, oro har errealitatekoa ez den, fantasia filosofikoaren zeru lainotsukoa bakarrik den gizakiarena.

Sozialismo alemaniar hori, bere eskola-ariketak hain serio hartzen zituen eta hainbeste eta hain solemneki tronpetatzen zituen, pixkanaka bere errugabetasun pedantea galduz joan zen. Alemaniar

burgesiaren, hau da, prusiar burgesiaren, feudalen eta monarkia absolutuaren aurkako borroka, hitz batean, mugimendu liberala serioago bihurtu zen.

«Egiazko» sozialismoari abagune hain desiratua eskaintzen zitzaion mugimendu politikoari erreibindikazio sozialistak kontrajartzeko, ohiko anatemak liberalismoaren aurka, ordezkapen- estatuaren aurka, konkurrentzia burges askearen aurka, prentsa-akastasunaren aurka, zuzenbide burgesaren, askatasun eta berdintasun burgesaren aurka botatzeko, herri-masari predikatuz, mugimendu burges horrekin ez zuela ezer irabaziko, aitzitik, dena galduko zuela. Sozialismo alemaniarrek garaiz ahaztu zuen kritika frantsesak, zeinaren bizirik gabeko oihartzuna baizik ez baitzen, gizarte burges moderno bat aurreuposatzen zuela, zegozkion bere bizibaldintza materialekin eta konstituzio politiko egokiarekin, auresuposizio garbiak, zeinak lortzeko ari baitziren borrokan Alemanian.

«Egiazko» sozialismo hori ongi zetorkien gobernu absolutuei beren

apaiz, eskola-maisu, landa-kapare eta burokraten segizioarekin txorimamu desiratu gisa mehatxu egiten saiatzen zen burgesiaren aurka.

Osagarri ezta zen zigorkada garratzentzat eta fusil-balentzat, zeinekin gobernu horiek alemaniar langile-erreboltei aurre egiten baitzieten.

Baina «egiazko» sozialismoa arma bat izateaz gainera, gobernuen eskuetan burgesia alemaniarren aurka interes atzerakor bat ere bitartegabe ordeztu zuen, alemaniar behe-burgesiaren interesa. Burgesia txikiak, XVI. mendetik heredatu eta harrezkero forma desberdinetan behin eta berriz azaleratuak, eratzen du Alemanian indarreko egoeraren benetakoa oinarria.

Klase hori iraunaraztea, indarreko egoera alemaniarra iraunaraztea da. Burgesiaren menderakuntza industrial eta politikoak beldurra dio beharakada seguruari, alde batetik kapitalaren

kontzentrazioarengatik, bestetik proletalگو iraultzaile baten

sozialismoak ematen zuen bi hegalak kolpe batez ebakiko zizkiola. Epidemia bat bezala hedatu zen.

Armiarma-sare espekulatibozko jantzia, erretorika-lorez apaindua, sentimendu gaixozkoaren ihintzetan blai eginak, jantzi traszendental horrek, zeinetan sozialista alemaniarrek estaltzen baitzituzten beren «egia betierekoak», hezurra eta azala baizik ez zirenek gehitu egiten zuten merkantzia horren eskaria publiko horretan. Bestalde, sozialismo alemaniarrek gero eta gehiago ulertzen zuen behe-burgesia horren goi-ordezkariz izatea zela bere betekizuna.<sup>7</sup>

Nazio alemaniarra nazio eredugarri eta mendeko alemaniarra gizaki normal aldarrikatu zituen. Morrontzakeria guztiei zentzu garai ezkutu sozialista eman zien, berez zirenez bestetara. Eta azken ondorioa atera zuen, komunismoaren joera «zakar suntsitzailea»ren zuzenean kontra jartzean eta bere garaitasun inpartziala klase-borroka guztien gainetik iragartzean. Alemanian zirkulatzen duen

etorrerarengatik. «Egiazko»

literatura sozialista eta komunista omen den guztia, salbuespen gutxi batzuekin, literatura zikin irendu horretakoa da.

## 2. Sozialismo burges edo kontserbadorea

Burgesiaren parte batek bigundu egin nahi ditu bidegabekeria sozialak gizarte burgesaren iraupena segurtatzeko.

Talde horretakoak dira ekonomialariak, filantropoak, humanitarioak, langile-klasearen hobetzaileak, gizarte-ekintzaren antolatzaileak, animaliekiko krudelkeriaren prebenitzaileak, alkohol- moderazioaren aldeko elkarteentzako sortzaileak pentsa litezkeen txoko-eraberritzaile pintarratuenak. Sozialismo burges hori sistema osoak izateraino aldatu da.

Adibidetzat Proudhonen Philosophie de la misère apaitzen dugu.

Burges sozialistek gizarte modernoaren bizi-baldintzak nahi dituzte, hartatik derrigorrean sortzen diren borroka eta arriskuak gabe. Existitzen den gizartea nahi dute, baina elementu iraultzaileak eta disolbatzaileak kenduta. Burgesia nahi dute proletalgorik gabe. Burgesiak errepresentatzen du, noski, menderatzen duen mundua mundurik hobereana bezala. Sozialismo burgesak errepresentazio kontsolagarri hori sistema edo erdi-sistema izatera eramaten du. Eta proletalgoari eskatzen dienez bere sistema egikartzeko eta Jerusalem berrian sartzeko, funtsean bakarrik eskatzen dio gaurko gizartean iraun dezala, baina haren errepresentazio gorrotagarriak ezabatuz.

Sozialismo horren bigarren forma batek, hain sistematikoa ez izan arren praktikoagoa denak, balio gabetu egin nahi du mugimendu iraultzaile oro langile-klasearen begietan ikusaraziz hari interesatzen zaiona ez direla aldaketa politiko hutsak baizik bizi-harreman materialen, harreman ekonomikoen aldaketa bat. Bizi-harreman materialen aldaketapean sozialismo horrek ez du ulertzen produkzio-harreman burgesak ezabatzea, zeina bide iraultzaileetatik bakarrik baita ahalgarri, baizik hobekuntza administratiboak, produkzio-harreman horien lurzorutik berez sortzen direnak, kapitala eta soldatapeko lanaren harremana ezertan aldatzen ez dutenak, baizik kasurik hobereanean bere menderakuntzaren kostuak urritzen eta aurrekontua sinpletzen diona.

Sozialismo burgesak dagokion adierazpena figura erretoriko huts bihurtzen denean lortzen du soilik.

Merkataritza askea! Langile klasearen interesetan; muga-zergak! Langile-klasearen interesetan; presondegi-erreforma! Langile klasearen interesetan; hori da sozialismo burgesaren azken hitz serio bakarra.

Burgesiaren sozialismoa datza baieztapen honetan: burgesak burges dira -langile klasearen interesetan.

3. Sozialismo kritikiko-utopikoa edo komunismoa

Hemen ez dugu hitz egingo literaturaz, zeinak iraultza moderno handi

guztietan proletalgoaren eskakizunak adierazi baititu. (Babeuf-en obrak eta abar.)

Proletalgoak bere klase-interesak sakontzeko egin dituen ahaleginek, astinaldi orokorreko garaietan, gizarte feudalaren amiltze-garaian, proletalgoaren beraren taxuera garatugabearekin topo egin behar zuten, alde batetik, eta askapenerako baldintza material ezinbestekoaren gabeziarekin, zeinak garai burgesaren produktuak izango baitziren. Literatura iraultzailea, zeinak lagundu baitzituen proletalgoaren lehen mugimenduak edukiaren arabera derrigorrean erreakzionarioa da. Aszetismo orokor bat eta berdinkeria gordin bat irakasten du.

Benetako sistema sozialista eta komunistak, Saint-Simon, Fourier, Owen eta abarren sistemak, proletalgoa eta burgesiaren arteko borrokaren lehen aldi garatugabetik sortzen dira, lehenago aurkeztu dugunez (Ikusi Burgesak eta proletarioak).

Sistema horien aurkitzaileek ikusten dituzte noski klaseen kontrajartzeak, baita gizarte menderatzailean bertan dauden elementu disolbatzaileen eragina ere. Baina ez dute ikusten proletalgoaren aldetik egintza historiko independenterik, propioa zaion mugimendu politikorik.

Klase-kontrajartzearen garapen industriaren garapenarekin batera gertatzen delarik, egoera ekonomikoak, aurkitzen dutenez, oraindik ez dizkie eskaintzen proletalgoaren emantzipaziorako baldintza materialak. Beraz, zientzia sozial berri bat bilatzen dute, lege sozial berriak, baldintza horiek sortuko dituztenak.

Egintza historikoa da beren egintza pertsonal asmatzailearen mendean jartzea, historikoki sortutako emantzipazio-baldintzak beste fantastiko batzuen mendean, eta pixkanaka, proletalgoaren klase-antolakuntza espontaneoaren asmatzaile horiek bereziki bururaturiko gizarte-antolakuntza baten mendean.

Haienez, etorriko den historiaren joira unibertuala beren plan sozialen propaganda eta egitaritza praktikora mugatzen da. Zinez jabeturik daude beren planetan nagusiki langile-klasearen interesak ordezkatzeko dituztela klase sufrituentzat hartzen baitute. Klase sufrituenaren ikuspuntu horren pean bakarrik existitzen da haienez proletalgoa.

Klase-borrokaren izaera garatugabeak, baita horren bizi-inguruneak ere, sinetsarazten die sozialistei klase-kontrajartze haien gainetik egotea. Hobetu egin nahi dute gizarteko kide bakoitzaren baldintza, baita fabora-

tuenena ere. Horregatik eskuarki gizarte osoari dei egiten diote desberdintasunik gabe, bereziki klase menderatzaileari. Zeren sistema ulertu behar da, gizarte ahalik eta hoberenaren plan ahalik eta hobereana berrezagutzeko.

Horregatik arbuiatu egiten dute egintza politiko oro, eta bereziki iraultzaile oro, beren xedeak bitarteko baketsuz lortu nahi dituzte, eta saiatzen dira esperimendu txiki, naturalki porrotera kondenatuz, eta etsenpluaren indarrez ebanjelio sozial berrirako bidea urratzea.

Etorkizuneko gizartearen hain deskribapen fantastikoa oraindik proletalgoa erabat garatu gabe dagoen garai batean sortzen da, oraindik bere posizioaz ikuspegi fantastiko bat duen bitartean, gizarte osoa orokorki birtaxutzeko bulkada senezkoen arabera.

Eta idazki sozialista eta komunista horietan badaude elementu kritikoa ere. Existitzen den gizartearen oinarri guztiei erasotzen diete. Horregatik eman dute langileen argitzapenerako material guztiz baliotsua. Baina etorkizuneko gizarteari buruzko tesi positiboak, adibidez, hiria eta landa arteko kontrajartzea, familia, jabetza pribatua, soldatapeko lana gainditzea, harmonia sozialaren iragarpena, estatua produkzioaren organismo administratibo soil bateraino eraldatzea –tesis horiek guztiek klasekontrajartzeak desagertuko direla adierazten dute, zeina doi hasi baita garatzen eta zeina bere lehen indeterminazio taxugabeen ezagutzen baitute. Horregatik, tesi horiek zentzu utopiko hutsa bakarrik dute.

Sozialismo eta komunismo kritiko-utopiko horren garrantzia gizartearen garapen historikoarekiko alderantzizko harremanean dago. Klaseborroka definituz eta areagotuz doan heinean, garrantzi praktikoa eta zentzu teorikoa galduz doa harekiko nagusitasunezko posizio fantastiko hori, hura ezabatzearen balio praktikoa oro, justifikazio teorikoa oro. Horregatik, sistema sozialista horien egileak zentzu askotan iraultzaileak baziren ere, horien ikasleek gaur sekta erreakzionarioak eratzen dituzte. Maisuen ikuspegi zaharrak temati sostengatzen dituzte proletalgoaren aurrebide historiko berrien aurrean. Beraz, kontsekuenteak dira klaseborroka biguntzen eta kontrajartzeak bitartekotzen ahalegintzen direnen. Eta amets egiten dute beren utopia sozialak esperimenterik egikaritzen, falansterio bakartuak sortzen, barne-koloniak oinarritzen, Ikaria txiki bat eraikitzen<sup>8</sup> –Jerusalem berriaren miniatuazko argitalpena–, eta gaztelu horiek guztiak airean eraikitzeke bihotz eta patrika burgesen filantropiara jo beharra daukate. Pixkanaka erortzen dira lehen deskribaturiko

sozialista erreakzionario edo kontserbadoreen kategorian, zeinetarik beren pendanteria sistematikoz, eta beren zientzia sozialen mirarigintzan sinestearen superstizio fanatikoak bakarrik bereizten baitira. Horregatik mingostasunez aurre egiten diete langileen mugimendu guztiei, zeinak itsukeria fedegabez bakarrik ez baitu ebanjelio berria aintzat hartzen.

Ingalaterrako owenistek chartisten aurka erreakzionatzen dute, Frantziako fourieristek erreformisten aurka.

#### **IV. Komunisten jarrera oposizioko gainerako alderdiekiko**

II. kapituluan esandakoaren arabera ulertzekoa da komunistek duten harremana jadanik eraturiko gainerako langile-alderdiekiko, chartista ingelesetik eta Ipar Amerikako nekazaritza- eraberritzaileekiko.

Komunistek langile-klasearen xede eta interes bitartegabeak lortzeko borrokatzen dute, baina presenteko mugimenduan mugimenduaren etorkizuna ere ordeztzen dute. Frantzian alderdi sozial- demokratikoarekin<sup>9</sup> aliatzen dira burgesia kontserbadore eta erradikalaren aurka, baina horrenbestez uko egin gabe tradizio iraultzailetik esapide eta lilurekiko kritikoki jarduteko eskubideari.

Suitzan erradikalak bermatzen dituzte, alderdi hori elementu kontrae-sankorrez eraturik dagoela ahaztu gabe: demokrata sozialistaz, frantsesen erara, eta burges erradikalez.

Poloniarren artean komunistek nekazaritza-iraultza sostengatzen duen alderdia bermatzen dute askapen nazionalerako baldintza gisa, 1846an Krakoviako matxinada eragin zuen alderdia.

Alemanian alderdi komunista burgesiaren alboan borrokatuko da, burgesiak iraultzaileki diharduen bitartean, burgesiarekin batera monarkia absolutuaren, jabetza feudal handiaren eta burgesia txikiaren aurka.

Baina une bakar batez ere ez diote utzi langileen artean lan egiteari, haiengan ahalik eta argitasun handienaz burgesia eta proletalgora bereizten dituen kontrajartze etsaikorraren kontzientzia sortu arte, langile alemaniarrek prestaturik egon daitezen burgesiaren aurka jartzeko, beste hainbeste armarekin, Alemanian klase erreakzionarioak horrela amildu ondoren, burgesiak eragin behar dituen baldintza sozial eta politikoarekin batera, burgesiaren beraren aurkako borroka has dadin. Alemaniara zuzentzen dute komunistek nagusiki beren arreta, zeren Alemania iraultza burges baten bezperatan baitago, eta inarrosaldi iraultzailea europar zibilizazioaren baldintza aurreratuenetan garatuko da eta XVII. mendean In-

galaterrakoa eta XVIII. mendean Frantziakoa baino askoz proletalgo gartuagoarekin, horregatik guztiagatik alemaniar iraultza burgesa iraultza proletario baten prelude bitartegabea izango da.

Hitz batean: komunistek alderdi guztietan bermatzen dute dagoen egoera politiko eta sozialaren aurkako mugimendu iraultzaile oro.

Mugimendu horietan guztietan jabetza-auzia jartzen da agerian, zeinahi delarik ere hartu duen forma gutxi-asko garatua, mugimenduaren oinarritzat. Azkenik, komunistek lanean dihardute alderdi demokratiko guztien batasunaren eta ulerkuntzaren alde herrialde guztietan.

Komunistek uko egiten diote beren ideia eta asmoak ezkutatzeari. Ageriki aitortzen dute beren xedeak orain arteko ordena soziala indarrez amilduz bakarrik lor daitekeela. Ikara bitez klase

menderatzaileak iraultza komunistaren aurrean. Proletarioek beren kateak baizik ez dituzte galtzeko. Mundu bat dute irabazteko.

Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitetze!

